

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

3239

AGINDUA, 2014ko uztailaren 8koa, Osasuneko sailburuarena, osasun-arloko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak emateko deialdia egiteko dena.

Osasun Sailaren helburuetariko bat osasun-arloko langileen prestakuntzaren bidez osasun zerbitzuen kalitatearen hobekuntza sustatzea da, eta bai osasunaren arloan diharduten zentroen kudeaketa hobetzea; betiere arlo hori era zabalenean ulertuta.

Hori dela eta, Osasun Sailak epe erdi eta luzerako estrategia bat planteatu du bai osasun-arloko langileak euren lan-praktikan gaitzeko, bai profesionalen nodo berriak sortzeko, betiere profesionalok kudeatzaile legez presta daitezen, gero osasun-zentro publiko eta pribatuetan integra daitezen.

Deialdi hau helburu horiek betetzeko egiten da; hain zuzen ere, diruz lagunduko dira, batetik, prestakuntza-ikastaroak eta egonaldiak osasun arloan.

Horregatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen bitartez, osasunaren arloan prestakuntza-planak gauzatzeko bekak eta laguntzak emateko erregimena arautu eta laguntza horietarako deialdia egiten da. 2014. urtean hasiko dira prestakuntza-plan horiek.

Hurrengo bekak eta laguntzak emango dira:

- Atzerriko zentroetan ikastaroak eta egonaldiak egiteko bekak eta laguntzak.
- Estatuko zentroetan egindako prestakuntza-jarduetarako, kudeaketa sanitarioan trebatzeko direnean.

2. artikulua.– Onuradunak.

Agindu honetan jasotzen diren beka eta laguntzak eskuratu ahal izango dituzte, goi-mailako edo erdi mailako unibertsitate tituluaren jabe izanik, gutxienez, eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenagotik, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean erroldatuta dauden pertsonak.

Ezingo dute deialdi honetan parte hartu prestakuntza-aldian dauden langile egoiliarrek.

Beka eta laguntzak emateak eta hartzeak ez du kontratu edo estatutu bidezko inongo harremanik ezarriko onuradunaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artean.

Onuradunei ezingo zaie diru-laguntzarik eta bekarik eman, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomoek emandako laguntzen edo diru laguntzen esparruan, izaera bereko itzultze edo zigortze prozeduraren bat amaitu gabe badago.

Ezingo dute deialdi honetan parte hartu zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zehatuta daudenek, ez eta horretarako ezgaitzen dituen

debekuren baten eraginpean daudenak ere –sexu-diskriminazioaren ondoriozkoa barne–, harik eta dagokion zehapenak ezartzen duen aldia amaitzen den arte.

3. artikulua.– Diru-laguntzak emateko prozedurak.

Modalitate bakoitzeko bekak eta laguntzak emateko, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51.4 artikuluan aurreikusitako lehiaketa-prozedurari jarraituko zaio (1/1997 Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena). Hori horrela, modalitate batean eta bestean aurkeztutako eskabideak erkatuko dira eta, 12. artikuluan finkatutako balorazio-irizpideak aplikatuz, eskabideak lehentasun-hurrenkeran jarriko dira. Diru-laguntzak, balorazio-fasean gutxienez hirurogei (60) puntu lortzen dituzten eskabideei emango zaizkie, horretarako dagoen diru-kopurua agortzen den arte.

4. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdi hau finantzatzeko erabiliko diren baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako bideratutako aurrekontu kredituetatik datoz, eta ehun eta hamaika mila laurehun eta hirurogei (111.460) euro erabiliko dira.

5. artikulua.– Jarduera eta gastu finantzarriak.

Emandako diru-laguntza beka edo laguntza izan daiteke.

1.– Hauxe da bekaren helburua: onuradunaren mantenu-gastuak finantzatzea prestakuntza planak irauten duen bitartean.

2.– Laguntza, berriz, onuradunak prestakuntza-planaren garapenean sortutako gastuetarako emango da, esate baterako: bidaia-gastuak, matrikula, ostatua, irakaskuntzako materiala erostea, etab.

3.– Onuradunak, prestakuntzako jarduerarekin batera, ordaindutako beste jardueraren bat egiten badu, bidaia-gastuetarako, matrikularako, ostaturako, irakaskuntzako materiala erosteko laguntza ekonomikoa baino ezingo du eskuratu.

4.– Onuradunak ordaindutako jarduerarik egiten ez duenean, mantenu gastuetarako beka bat eta gastuetarako laguntza ekonomiko bat jaso dezake bidaia-gastuetarako, matrikularako, ostaturako, irakaskuntzako materiala erosteko.

5.– Emango den beka edo laguntza, gehienez, urtebetekoa izango da. Prestakuntza-planak iraupen luzeagoa izango balu, onuradunak, diru-laguntza edukitzeko epea amaitu ondoren, beste beka bat eskatu ahal izango du, hurrengo aurrekontu deialdiak ezarriko duenaren arabera.

6. artikulua.– Beken eta laguntzen zenbatekoak.

1.– Beken zenbatekoa ezingo da izan, hilean, mila eta bostehun (1.500) eurokoa baino handiagoa.

Atzerriko egonaldiak edo ikastaroak jarraian hiru hilabetetik gorakoak direnean, familiarekin batera egiten badira, hileru hirurehun (300) euro arteko laguntza gehigarria jaso ahal izango da diru-sarrera propiorik ez duen seme-alaba bakoitzeko. Kasu horretan, eskabide-egileari bakarrik ordainduko zaizkio bidaia-gastuak, eta ez harekin joango diren familiartekoei.

2.– Laguntzako dotazio ekonomikoan, matrikularako emandako laguntza ez da 10.000 eurotik gorakoa izango da, ostaturako hilean 900 eurotik beherakoa izango, eta materialerako eta bidaierarako ez da izango 2.000 eurotik gorakoa.

7. artikulua.– Beken eta laguntzen bateragarritasun-araubidea.

1.– Agindu honen babesean ematen den bekaren bat eskuratuz gero, ezin izango da ordaindutako lanik egin, ez –diruz lagundutako prestakuntza-jarduera bererako– erakunde publiko nahiz pribatu batek emandako beste beka edo laguntzaren bat hartu, edo ez beka horiek berez eskatzen duten lana behar bezala burutzea galaraziko duen beste eginkizunen bat izan.

2.– Bestalde, laguntza hau helburu bereko beste edozein diru-laguntzarekin bateragarria izango da, betiere, finantzatutako jardueratik ez bada gainfinantzaketarik sortzen. Halakorik gertatuz gero, emandako laguntza dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.

8. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Izapideketa elektronikoa honako hauen bidez dago erregulatutik: Administrazio Elektronikoa buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua; Informatika eta Telekomunikazioen zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Platea– ezarzen duen dokumentua onartzen duena.

2.– 21/2012 Dekretuaren 28. artikuluko lehen paragrafoan oinarritutik, agindu honetan zehaztutako edozein beka eta laguntzatarako eskabidea bide telematikoz aurkeztu beharko da; hartarako, eskabide-egileak sinadura elektronikoa eta txartel irakurgailua izan beharko ditu. Erabili beharreko egoitza elektronikoa hurrengo artikuluan zehazten da.

3.– <https://www.euskadi.net/y22-home/es> egoitza elektronikoan kontsultatu ahal izango dute euren espedientearen egoera administratiboa eskabide-egileek; eta egoitza horren bitartez eta «Nire gestioak» sekziotik bidali beharko ditu normalizatu gabeko dokumentuak, eta, beharrezkoa bada, eskabide egin eta gero aurkeztu beharreko dokumentuak, eta, orobat, jakinarazpenak jaso eta eskabideari buruzko izapidetak egin.

9. artikulua.– Eskabideak. Aurkezteko lekua, bidali beharreko agiriak eta onartzeko epea.

1.– Eskabideak ondoren zehaztutako egoitza elektronikoak erabiliaz egin beharko dira:

Euskara

http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-pkproc01/eu/contenidos/ayuda_subvencion/becas_formacion_2014/eu_def/index.shtml

Gaztelera

http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-pkproc01/es/contenidos/ayuda_subvencion/becas_formacion_2014/es_def/index.shtml

2.– Eskatzaileek eurek hautatzen duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskabidea eta harekin batera eskatzen den dokumentazioa. Halaber, eskabidearen ondoriozko jarduera guztietan, eta prozedura osoan zehar, eskatzaileak hautatu duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.1 artikuluan ezarritakoa betez.

Eskabidearen bidez adieraziko du, halaber, ordaindutako lanik egiten duen ala ez, eta ba al daukan beste eginkizunik, bekaz gozatzen hasten den unean diruz lagundutako jarduera behar bezala burutzea galaraziko diona.

Halaber, eskabidearen bidez hurrengo aitortpenak ere egiaztatuko dira:

– Eskatzaileak eskabideko helburudun beste ezein laguntzatik ez duela jasotzen edo, kasua bada, erakunde baten laguntza jasotzen duela (zenbatekoa zehaztuaz) edo ebazteko dagoen laguntza bat eskatu duela.

– Eskatzaileak ez duela zehapen administratiborik edo penalik, laguntza edo diru-laguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dionik, eta ez duela laguntza horiek jasotzen uzten ez dion legezko debekurik.

– Eskabidean eta harekin batera doazen agirietan jarritako datuek benetakoak izan behar dute, eta eskatzaileak bete egin behar ditu laguntzen onuradun izateko betekizunak, indarrean diren arauak ezartzen dituzten horiek, hain zuzen.

3.– Eskabidearekin batera, ondoko agiriak ere aurkeztu behar dira:

a) Prestakuntza-planaren datuei buruzko inprimakia; bertan, plana gauzatzeko aurreikusten den gastuak jasoko dira (I. eranskina); eranskin horri erantsiko zaizkio programa, horren edukiak eta egingo diren jarduerak.

b) Curriculum Vitae laburtua (II. eranskina).

c) Behar izanez gero, prestakuntza-plana egiteko baimena, eskatzailearen lantokiko zuzendaritzak emana.

d) Errolda-ziurtagiria.

Eskabideak egiteko agiri normalizatuak laguntza modalitate bakoitzari dagokion web-orrian daude eskuragarri. Aginduan eskatutako beste edozein agiri edo eskabide egiten duen entitateak aurkeztu nahi dituenak, euskarri informatikoan bidali ahal izango dira, hain zuzen ere «Nire Kudeaketak» sekzioaren bitartez.

4.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

5.– Deialdiko oinarriren bat ez betetzeak, edo datuak gorde, aldatu edo eskatutako argibideak manipulatzek, eskaria ezestea ekarriko du. Horrek ez du esan nahi erantzukizun administratiboa, zibila edo penala eskatzeko aukera baztertuko denik.

10. artikulua.– Eskabidean egindako hutsen zuzenketa.

Laguntzen eskabidea ez badago behar bezala beteta edo eskatutako dokumentazioa falta badu, eskatzaileari eskatuko zaio, hamar eguneko epearen barruan hutsa zuzentzeko edo agindutako agiriak aurkezteko, eta hau ohartaraziko zaio: eskatutakoa egiten ez badu, eskabidea bertan behera utzi duela ulertuko dela. Dena den, Administrazioa behartuta dago eskabideen gainean ebazpen adierazi bat hartzea eta ebazpena jakinaraztea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1 artikuluetan xedatutakoa betez.

11. artikulua.– Eskabideen ebaluazioa.

1.– Aurkeztutako eskabideak ebaluatzeko, dagokion Balorazio Batzordea eratuko da, eta kideak hauek izango dira:

a) Presidente: Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria.

b) bokalak:

– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Etengabeko Prestakuntzako arduraduna.

– Irakaskuntza eta Garapen Profesionaleko zerbitzuko burua.

c) Idazkaria: Osaun Saileko Irakaskuntzarako eta Garapen Profesionalerako Zerbitzuko laguntzen teknikari arduraduna.

1.– Batzorde horrek eskabideen balorazio egokirako beharrezkotzat jotzen dituen aholkuak eskatu ahal izango ditu.

2.– Batzordeak prestakuntza-plana osorik ulertzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarria aurkezteko eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

3.– Azkenik, Batzordeak, aurreikusitako balorazio-irizpideak aplikatuz, aurkeztutako eskabideak baloratuko ditu eta Osasuneko sailburuordeari dagokion ebazpen-proposamena aurkeztuko dio.

12. artikulua.– Esleipen-, ponderazio- eta kuantifikazio-irizpideak.

1.– Beken eta laguntzen esleipena irizpide hauetan oinarriturik eta ondoko ponderazio honen arabera egingo da:

a) Eskatzailearen Curriculum Vitaea: gehienez, 15 puntu.

b) Beka edo laguntza eskatzen den Ikasketen prestakuntza-kalitatea: gehienez, 15 puntu.

c) Ikasketak egingo diren zentroaren edo erakundearen prestakuntza-kalitatea: gehienez, 15 puntu, 15, 10 eta 5 punturekin baloratuaz, zentroaren tipologiari erreparatuta munduko rankingeko lehen, bigarren edo hirugarren tartean egotearen arabera.

d) Egin beharreko ikasketek zein hurbiltasun duten jarraian zehazten diren lehentasun-arloekiko (gehienez, 25 puntu), 25, 15 eta 5 punturekin baloratuaz, egokitzapena altua, ertaina edo baxua denean:

Zerbitzu sanitarioen antolamendua eta kudeaketa.

Sanitateko eta teknologia berriko zerbitzuen ebaluazioa.

Osasun Publikoa eta Osasunaren Sustapena eta Prebentzioa.

Kalitatezko Asistentzia.

Kronikotasunerako estrategia, Zahartzaro eta Mendekotasuna.

e) Egin beharreko ikasketak eskatzailearen lan-jarduera horietara egokitzea: gehienez, 20 puntu, 20, 10 eta 5 punturekin baloratuaz, egokitzapena altua, ertaina edo baxua denean.

f) Euskadiko osasun-sistematik lan-harreman etengabea, eskabidea aurkeztu denetik deialdia ebazten den artekoa:

Eskatzailea plantillako langile finkoa izatea, edo osasun-arloko profesionala izanik, bere espezialitatea –egoiliar gisa– amaitua izatea, deialdi hau argitaratu aurreko bi urteetan: gehienez, 10 puntu.

Bitarteko langile izatea: 5 puntu.

Aldi bateko langilea edo ordezkaria izatea: 2 puntu.

Sistemaz kanpokoa izatea: 0 puntu.

2.– 6. artikuluan ezarri diren gehienezko zenbatekoak eta aurkeztutako aurrekontua –gehienez finantza daitekeena– errespetatuz, bekaren zenbatekoa zehaztuko da prestakuntza-planaren iraupenaren eta plana burutuko den tokietan dagoen bizimoduaren kostuaren arabera.

Laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da prestakuntza-plana aurrera eramateko egin behar diren gastuen arabera.

13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Lehiaketako prozedurak honelaxe ebatziko dira: Osasuneko sailburuordeak emandako ebazpenaren bidez, balorazio batzordeak proposaturik.

2.– Ebazpenak onuradunen zerrenda, emandako diru-laguntza mota (beka edo laguntza ekonomikoa) eta horren zenbatekoa adieraziko ditu, baita baztertu diren eskabideen zerrenda ere, baztertzeko arrazoi eta guzti.

3.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratuko da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hiru hilabeteko epean. Epe hori igaro eta ebazpenik argitaratu ez bada, interesdunek ulertu ahal izango dute euren eskabidea ezetsi egin dela, halaxe ezarrita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan, ahaztu gabe lege berak Administrazioari berariaz ebatzi behar duela ere agintzen diola.

4.– Onuradunei honako hauek bidaliko zaizkie; onarpen-agiria bidaliko zaie; hirugarrenaren alta-inprimakia; dirulaguntzako prestakuntza-jardueretara egoki dedikatzea galarazten duen okupaziorik edo lan-jarduerarik ez izateari buruzko erantzukizuneko deklaraziorako inprimakia. Dokumentazio hori beteta Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzara itzuli beharko da, jasotzen denetik harako hogeitun egun naturaleko epearen barruan.

5.– Interesdunek, Osasuneko sailburuordearen ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

14. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Bekak edo laguntzak jasotzen dituzten onuradunek, nolana ere, honako betebeharrak hauek izango dituzte:

1.– Emandako beka edo laguntza onartzea. Zentzu horretan, beka jaso eta egutegiko hogeitun eguneko epean, Sanitatearen Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazioko Zuzendaritzara ez bada bidali aurreko artikuluan 4. paragrafoan aipatzen den onarpen-agiria, edo aipatu dokumentua bidali ez izana ez bada behar bezala justifikatzen, beka edo laguntzari uko egiten zaiola ulertuko da.

2.– Laguntza edo beka eman zaion horrexetarako erabiltzea eta ez beste ezertarako.

3.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak –beren eginkizunetan dihardutela– deialdi honen kontura jasotako beka edo laguntzaren inguruan eskatzen dieten informazioa ematea.

4.– Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzari, eskabidean adierazitako datuetan gerta litekeen edozein aldaketen berri ematea, aldaketa gertatu, eta, gehienez, hilabeteko epean (bereziki, 7. artikuluko bateragarritasun-araubideari eragiten diotenak).

5.— Onuradunen prestakuntza-jarduerak hiru hilabete baino gorakoak badira, beren prestakuntza-jardueren garapenari buruzko hiruileko txosten bat bidali beharko dute Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzara.

15. artikulua.— Ordainketa.

Ematen diren beka eta laguntzen ordainketa zatika egingo da, honela:

Lehen ordainketa, diru-laguntzaren zenbateko osoaren ehuneko hirurogeita hamabostekoa (% 75), berehala emango da, behin 13.4 eta 14.1 artikuluetan aipatzen den onarpen-agiria behar bezala beteta jaso denean.

Gainerakoa, onuradunak —prestakuntza-plana amaitu eta, gehienez, bi hilabeteko epean— 17. artikuluan adierazten den dokumentazioa bidaltzen duenean.

16. artikulua.— Bekari edo laguntzari uko egitea.

Behin bekaz baliatzeko epea hasiz gero, uko egitea, idatzizkoa eta behar bezala justifikatutakoa, Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzan formalizatu beharko da, uko egiteak eraginak sortzen dituen data baino 10 egun lehenago. Uko egitea berariaz onartu beharko du Osasuneko sailburuordeak, eta pertsona onuradunaren egonaldi-gastuetarako bekarerikiko eskubideak galtzea ekarriko du, uko egiteak eraginak dituen hiruhilabeteko lehen egunetik hara, baldin eta bekaz baliatzeko lehen hiruhilabetekoan gertatzen bada uko egitea; eta, halaber, bidai- eta matrikula-gastuekiko eskubideei dagokienez.

17. artikulua.— Beken eta laguntzen justifikazioa.

Beka eta laguntzen onuradunak diru-laguntzari emandako erabilera justifikatzera behartuta daude; horretarako, ondoko agiriak bidaliko dituzte Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzara:

1.— Atzerriko zentroetan egonaldiak eta ikastaroak egiteko emandako bekak eta laguntzak.

a) Bekak:

— Amaierako memoria, egindako prestakuntza-jardueren deskribapena eta zentro hartzailearen irakaskuntza-kalitatearen balorazioarekin.

— Zentro hartzaileak emandako aprobetxamendu-ziurtagiria edo titulua.

b) Laguntzak:

Beketarako aipatu diren agiriez gain, gastu osoen zerrenda eta justifikatu beharreko fakturen originalak ere aurkeztu beharko dira: bidaiak, matrikulak, ostatuak, irakaskuntzako materialen erosketen diru laguntzak, eta abar.

18. artikulua.— Diru-laguntzaren baldintzen aldaketa.

Beka edo laguntza emateko aintzat hartutako baldintzen aldaketa orok —betiere horien xedea betetzat jotzen denean— eta, aldi berean beste laguntza batzuk lortzeak, diru-laguntzaren aldaketa ekar dezake. Sanitatearen Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazioko Zuzendaritzak izango du laguntza gutxitzeko espedientea hasi eta izapideak egiteko eskumena; eta horri buruzko ebazpena emateko eskumena, berriz, Osasuneko sailburuordeak izango du.

19. artikulua.— Betebeharrak ez betetzea.

Batetik, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak –aza-roaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuenak– ezarritakoaren arabera, eta, bestetik, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermea eta sarreraren araubidea erregulatzen duenak– ezarritakoarekin bat eginez, onuradunak ez baditu agindu honetan ezarritako eskakizunak, baldintzak eta epeak betetzen, laguntza beste helburu baterako erabiltzen badu edo aprobetxamendu akademikoa ez bada nahikoa, prozedura-izapide egokiak bideratu ostean, laguntza eskuratzeko eskubidea galdu duela emango da aditzera. Horretaz gainera, ordura eskuratutako diru-zenbatekoak gehi horien legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkio, eta horretaz gain, bidezkoak diren bestelako ekintzak ere egin ahal izango dira. Aipatutako diru-kopuru guztiak diru-sarrera publikotzat hartuko dira ondorio guztietarako.

Ez-betetze espediente hasi, izapidetu eta ebazteko eskumena Osasuneko sailburuordearena izango da.

20. artikulua.– Datu pertsonalen babesa.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak jakinarazten dizu eman dituzun eta zure eskabidean agertzen diren datuak lerketa, Ebaluazio Sanitarioa eta Garapen Profesionala izeneko fitxategian sartu direla. Datu horiek, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik. Datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauak jarraiki, eskatzaileak badu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzara jotzea (Donostia kalea, 1, 01010, Gasteiz).

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honen aurka, administrazio-bidea agortzen baitu, interesdunek Osasuneko sailburuaren aurrean aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honetan jaso ez diren kontuetan, azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean idatzitakoari jarraiki.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 8a.

Osasuneko Sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.

PRESTAKUNTZARAKO BEKARAKO ESKABIDE ELEKTRONIKOA

ESKABIDEA AURKEZTEN DUENAREN DATU PERTSONALAK	
Abizenak eta izena:	
NAN/NIE/Pasaportea:	
Sexua:	Gizona: Emakumea:
Nazionalitatea:	
Jaiotze data:	
JAKINARAZPENA	
Helbidea:	
KP:	
Lurraldea:	
Udalerria:	
Telefonoa:	
Telefono mugikorra:	
E-maila:	
DATU PROFESIONALAK	
Lan-zentroa:	Herria:
Zerbitzua:	
Lanpostu mota:	Telefonoa:
Finkoa	Bitartekoa
Aldi baterako langilea edo ordezkoa	Sistemaz kanpokoa
Bestelakoa	
Hasiera-eguna: (dd/mm/aaaa)	Hileko ordainsari garbia: €
ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENAK	
Eskatu edo lortu al duzu inoiz diru-laguntzarik xede eta helburu berarekin Administrazio Publikoen edo erakunde pribatuen eskutik?	
Bai	Ez
<i>*BAI erantzunez gero, eskaera edo kontzenzioaren kopia atxikitu behar duzu.</i>	

Eskatzaileak ADIERAZTEN DU:

1. Ez dagoela zigor eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta, ezta hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean, ere.
2. Eskabide honetan bildutako eta eskabideari erantsitako dokumentazioan bildutako datuak egiazkoak direla.
3. Laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak betetzen dituela.

AURRETIK EMANDAKO DOKUMENTUAK

Dokumentuak hauek kontsultatzeko baimena ematen dut:

Dokumentu bakoitzeko bere izena, noiz eta zein erakundetan entregatu zen adierazi beharko da.

Dokumentuak:

DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGEA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak jakinarazten dizu eman dituzun eta zure eskabidean agertzen diren datuak Ikerketa, Ebaluazio Sanitaria eta Garapen Profesionala izeneko fitxategian sartu direla. Datu horiek, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik. Datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauak jarraiki, eskatzaileak badu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzara jotzea (Donostia kalea, 1, 01010, Gasteiz).

Baimendutako dokumentu-egiaztapenak

Aurkeztutako dokumentazioa

Nork sinatu du elektronikoki?



I. ERANSKINA PRESTAKUNTZA PLANAREN DATUETARAKO INPRIMAKIA

Izartxoa (*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

JARDUERAREN DATUAK

Jardueraren izena: *			
Zentroa: *	Saila: *		
Helbidea: *	Zk: *	Pisua: *	Letra: *
Herria: *	Herrialdea: *	PK: *	
Telefonoa: *	Faxa: *		
E-mail: *			
Hasiera-data: *	Amaiera-data: *		
Ordu teorikoen kopurua: *	Ordu praktikoen kopurua: *		
Tutorea (halakorik badago): *			
Tutorearen kargua: *			


BEKADUNAREN EGOITZA JARDUERAK DIRAUEN BITARTEAN

Helbidea: *	Zk: *	Pisua: *	Letra: *
Herria: *	Herrialdea: *	PK: *	

JARDUERAREN AURREKONTUA

Kontzeptua	Zenbatekoa
Matrikula	
Lekualdatzeak	
Ostatua	
Mantenua	
Familia-gastuak	
Bestelako gastuak (zehaztu)	
Eskatutako zenbatekoa	

Eranskin honi erantsi behar diozu hurrengo dokumentazioa: Prestakuntza plana.



II. ERANSKINA EUROPAR CURRICULUM MODELOA

INFORMAZIO PERTSONALA

1

Lehen Abizena:	_____	Bigarren Abizena:	_____
Izena:	_____		
Helbidea (Kalea/Plaza):	_____	Zk:	_____
Herria:	_____	PK:	
Telefona:		Mugikorra:	
E-mail:	_____		
Nazionalitatea:	_____	Jaiotza-data:	_____
Sexua:	☐ Gizona ☐ Emakumea		

LAN-ESPERIENTZIA

Berrienetik hasita, deskribatu lanbide garrantzitsu bakoitza, banan-banan.

Hasiera-data: _____ **Amaiera-data:** _____

Lanbidea edo betetako kargua: _____

Eginkizunak eta ardura nagusienak:

Enpresa edo enplegu-emailearen izena: _____

Enpresa edo enplegu-emailearen helbidea: _____

Enpresa edo sektore-mota: _____

HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

Berrienetik hasita, deskribatu lanbide garrantzitsu bakoitza, banan-banan.

Hasiera-data: _____ **Amaiera-data:** _____

Lortutako titulua: _____

Ikasgai nagusienak edo ikasitako gaitasun profesionalak: _____

Ikastetxearen izena eta mota: _____

Nazioarteko sailkapenarekin edo sailpen nazionalarekin bat egiten duen maila: _____

GAITASUNAK ETA TREBETASUN PERTSONALAK**2****Hizkuntzak**

Zure ama-hizkuntza adierazi (ama-hizkuntza bat baino gehiago baduzu, bakoitza adierazi):

Ama-hizkuntza: _____

Beste hizkuntza(k) - Autoebaluazioa:

Hizkuntza	Ulermena		Ahozkoa		Idatzia
	Ahozko ulermena	Idatzizko ulermena	Ahozko elkarreragina	Ahozko gaitasuna	

Gaitasunak eta jendetasuna

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta antolatzeko trebetasuna

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta trebetasun teknikoak

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta trebetasun informatikoak

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta trebetasun artistikoak

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Beste gaitasun eta trebetasun batzuk

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gida-baimena:

- | | | | | | |
|-----------------------------|--------------------------------|---------------------------------|---------------------------------|----------------------------|------------------------------|
| ☐ AM | ☐ B | ☐ C1 | ☐ D1 | ☐ E | ☐ BTP |
| ☐ A1 | ☐ B + E | ☐ C1 + E | ☐ D1 + E | | |
| ☐ A2 | | ☐ C | ☐ D | | |
| ☐ A | | ☐ C + E | ☐ D + E | | |

BESTE INFORMAZIO BATZUK

Ahal honetan garrantzia eduki dezakeen beste edozein informazioa adierazi, adibidez jende-kontaktua, erreferentziak, argiltapenak, etab.

DOKUMENTUARI BURUZKO AZALPENAK

1 INFORMAZIO PERTSONALA

Curriculum nola betetzeko informazioa jasotzeko, helbide honetara jo:

<http://europass.cedefop.europa.eu/europass/home/vernav/Europass+Documents/Europass+CV.csp>:

2 GAITASUNAK ETA TREBETASUN PERTSONALAK

Autoebaluazio taula sei maila-eskalako hizkuntzetarako erreferentzia den Europako esparru komunean oinarritzen da, Europako Kontseiluak egina.

Taulak honako 3 mailak ditu:

- oinarritzko erabiltzailea (A1 eta A2 mailak);
- erabiltzaile independentea (B1 eta B2 mailak);
- erabiltzaile gaitua (C1 eta C2 mailak).

Atzerriko hizkuntzan zure maila autoebaluatzeko, hurrengo deskribapenak irakurri eta zure curriculumean agertzen diren laukitxoetan (ahozko ulermena, idatzizko ulermena, ahozko elkarreragina, ahozko adierazpena, idazmena) maila egokia adierazi (adibidez Bikain - C2).

Ahozko ulermena	A1	Gai naiz niri, nire familiari eta inguruko gauzei buruzko hitz arruntenak eta oso oinarritzko esapideak ulertzeko, jendeak astiro eta argi hitz egiten duenean.
	A2	Gai naiz lexiko eta esapide erabilienak ulertzeko zuzenean dagozkidan arloetan (adib. oinarritzko informazioa nitaz, nire familiaz, erosketez, inguruaz, lanaz).
	B1	Gai naiz ideia nagusiak ulertzeko, hizketa argi eta estandarra denean, eta gaiak ezagunak direnean: lana, eskola, aisialdia etab. Ulertzen dut gaur egungo gaiez edo interes pertsonaleko edo profesionaleko gaiez diharduten telebista-edo irati-saioteko ideia nagusiak, baldin eta poliki eta argi hitz egiten badute.
	B2	Gai naiz konferentzia eta hitzaldi aski luzeak ulertzeko. Era berean, argudio konplexuak ere ulertzen ditut, baldin eta gaia gutxi-asko ezaguna badut. Ulertzen ditut telebistako albistegiak eta eguneko gorabeherei buruzko saio gehienak.
	C1	Gai naiz berbaldi luze bat ulertzeko, oso garbi egituratuta ez badago ere edo erlazioak oso esplizituak izan ez arren. Telebista- programak eta filmak neke handirik gabe ulertzen ditut.
	C2	Ez dut inolako arazorik edozein hizketaldi ulertzeko, ez zuzeneko, ezta komunikabideetako ere, baita jatorrizko hitzunen abiaduran hitz egiten dutenean ere, baldin eta bere hizkera-moduarekin ohitzeko denbora badut.
Idatzizko ulermena	A1	Gai naiz hitz eta izen oso ezagunak ulertzeko, baita esaldi oso sinpleak ere. Adibidez, iragarkietan, posterretan edo katalogoetan.
	A2	Gai naiz testu labur eta oso sinpleak irakurtzeko. Gai naiz informazio jakin eta aurreikus daitekeena eguneroko dokumentu arruntetan bilatzeko, esate baterako iragarkietan, prospektuetan, menuetan eta ordutegietan. Gai naiz gutun pertsonal labur eta sinpleak ulertzeko.
	B1	Gai naiz hizkera arruntean idatzitako testuak edo nire lanari buruzkoak ulertzeko. Gai naiz gertaeren deskribapena edota sentimenduen eta desioen azalpena ulertzeko gutun pertsonaletan.
	B2	Gai naiz gaur eguneko gaiei buruzko artikulua eta txostenak irakurtzeko, egileak jarrera jakin bat edota ikuspuntu berezia erakusten duenean. Gai naiz gaur eguneko hitz lauzko literatura-testuak irakurtzeko.
	C1	Gai naiz gertakarietan oinarritutako testuak edo literatura-testu luze eta konplexuak ulertzeko eta estiloak bereizteko.
	C2	Gai naiz edozein testu-mota irakurtzeko, baita abstraktuak eta egituraz edo hizkuntzaz zailak direnak ere. Adibidez, eskuliburuak, artikulua espezializatuak edo literatura-lanak.

Ahozko elkarreragina	A1	Gai naiz modu sinplean komunikatzeko, baina solaskidearen menpe nago, hark prest egon behar baitu nik esandakoa astiro errepikatzeke, birformulatzeko edo nahi dudana esaten laguntzeko. Gai naiz berehalako premiei edo oso gai arruntei buruzko galdera errazak egin eta erantzuteke.
	A2	Gai naiz komunikatzeko jarduera eta arlo ezagunetan, informazio-trukea zuzena eta sinplea denean. Elkarriketa osoa jarraitzeko adina ulertzen ez badut ere, gai naiz informazio-truke labur-laburrag egiteko.
	B1	Gai naiz hizkuntza mintzatzen den herrialdera egindako bidaia batean gerta litezkeen egoera gehienei aurre egiteko. Gai naiz, prestatu gabe ere elkarriketan parte hartzeko, gaiak ezagunak direnean, interes pertsonalekoak edo bizimodu arruntekoak (familia, aisialdia, lana, bidaiak, albisteak,...).
	B2	Gai naiz jatorrizko hiztun batekin normal mintzatzeko, berezkotasun eta erraztasun nahikoarekin. Gai naiz elkarriketan era aktiboan parte hartzeko eta nire iritziak azaldu eta defenditzeko egoera ezagunetan.
	C1	Gai naiz natural eta jarioz hitz egiteko, esapideen bila nabarmen luzatu gabe. Badakit hizkuntza gizarteedo lanbide-erlazioetan malgu eta eraginkor erabiltzen.
	C2	Gai naiz ahalegin handirik gabe, edozein elkarriketa edo eztabaidatan parte hartzeko. Esamoldeak eta lagunarteko hizkera ondo erabiltzen ditut. Ideiak jarioz eta fiabardura guztiekin adierazten ditut. Zailtasunen bat badut gai naiz atzera egiteko eta hutsunea trebeziak konpontzeko solaskidea ia konturatu gabe.
Ahozko adierazpena	A1	Gai naiz esaldi eta esapide sinpleak erabiliz nire bizilekua eta jende ezaguna deskribatzeko.
	A2	Gai naiz esaldiak eta esapideak sorta batean erabiltzeko honelakoak era sinplean deskribatuz: nire edo beste norbaiten familia, nire bizimodua, ikasketak, oraingo edo lehengo lana.
	B1	Gai naiz esaldiak era sinplean josteko, honelakoak deskribatzearen: esperientziak, gertaerak, ametsak, itxaropenak eta helburuak.
	B2	Badakit zehatz eta argi hitz egiten nire intereseko gai askori buruz.
	C1	Gai naiz deskribapen argiak eta xeheak egiteko gai konplexuei buruz, horiekin lotutako gaiak integratuz, zenbait puntu garatuz eta berbaldia egoki amaituz.
	C2	Gai naiz deskribapen edo argudioen azalpen argiak jarioz egiteko eta testuinguruari egokitutako estiloan, horretarako egitura logiko eta eraginkorrak erabiliz, entzuleari ideia nagusiei erreparatzen eta haiek gogorarazten laguntzeko.
Idatzizko adierazpena	A1	Gai naiz postal laburrak eta errazak idazteko, esaterako zorientzekoak. Gai naiz nire datu pertsonalak galdetegi batean idazteko. Adibidez, izena, nazionalitatea edo helbidea hoteleko erregistro-orrian.
	A2	Gai naiz berehalako premiei buruzko ohar eta mezu sinpleak idazteko. Gai naiz gutun pertsonal oso sinpleak idazteko, adibidez eskerrak ematekoak.
	B1	Gai naiz testu sinpleak eta koherenteak idazteko, gai ezagunen edo interes pertsonalekoen gainean. Gai naiz gutun pertsonalak idazteko, nire esperientziak eta irudipenak adieraziz.
	B2	Gai naiz nire intereseko gai askoren inguruan, testu argiak eta xeheak idazteko. Gai naiz idazlan bat edo txosten bat egiteko informazio jakin bat adieraziz edota iritzi baten aldeko edo kontrako arrazoiak emanez. Gai naiz gutunak idazteko, gertaerei eta esperientziei ematen dieran garrantzia nabarmenduz.
	C1	Gai naiz testu argi eta ongi egituratuak osatzeko, neure ikuspuntua luze-zabal adieraziz. Badakit gai konplexuak adierazten gutun, idazlan edo txostenetan, garrantzizkoen iruditzen zaizkidan puntuak azpimarratuz. Gai naiz hartzaileari egokitutako estiloa erabiltzeko.
	C2	Gai naiz testu argiak jartotasunez idazteko, estilo egokian. Gai naiz gutun, txosten edo artikulua konplexuak idazteko, argudioak egitura logiko eta eraginkorraren bidez antolatuz, irakurleak puntu nagusiak ulertu eta gogoan har ditzan. Gai naiz idazlan profesionalak edo literatura-idatziz laburtzeko eta kritikatzeko.